



I. ATALA TXILLARDEGIREN LANAREN OMENEZ



7

GIZON BEGI-GORITU

Paulo Agirrebaltzategi

Jakin aldizkariko edizio-kontseiluko kidea

Helbide elektronikoa: abaltzategi@euskalnet.net

Elorri liburuan badu Bitoriano Gandiagak olerki bakan bat, beste guztietatik apartekoa, ez izadiari, ez Arantzazuri, ez elorriari eta ez Andre Mariari dagokiona. Bizitza edo esperientzia esistentzialari buruzkotzat har daiteke, eta horietakoak asko ditu liburu horretan. Baina horietan ere bakana da, beste idazle bati eta hark idatzia duen obra jakin bati eskainia delako —horrelako bakarra liburu osoan—: Txillardegi da idazle hori, eta *Leturiaren Egunkari Ezkutua* da liburua —hark argitaraturiko aurrena (1957)— eta “Gizon begi-goritu” hasten da.

Urtebete lehenago ezagutu zuen Gandiagak Txillardegi, baina ez aurrez aurre, Euskaltzaindiak Arantzazun 1956ko irailean antolaturiko Euskaltzaleen Biltzarrerara hark bidalitako gutun irekiaren bidez baino. —Lehenagotik ere entzuna zuen seguruenik haren izena eta agian irakurriak ere bai hark *Egan-en* eta *Euzko-Gogoa* aldizkarietan idatzitako idazlanak—. Txillardegik berak bazuen nolabaiteko harremanik aurretik Arantzazurekin, hango beste olerkari batekin, 50.eneko lehen urteetan Donostian bizi zen Salvatore Mitxelenarekin solasaldirik edukia baitzen, eta uste izatekoa da Arantzazuri buruzko haren obra poetikoak ere irakurriak zituela. Gandiagarekin, berriz, ez dirudi harremanik izana, haren izena agian ezagutzen batzuen ere poesi sariren bat edo beste irabazia

baitzuen eta argitaraturik ere bazuen olerkirik *Euzko-Gogoa*-n, baita *Arantzazu* aldizkarian ere.

Dakigunez, aurrez aurre ezagutu, UEUren lehen ekitaldian ezagutu zuen Gandiagak Txillardegi, Donibane Loitzuneko Maurice Ravel Lizeoan, 1973ko udan. Txillardegik parte hartu zuen hartan irakasle moduan; eta Gandiagak parte hartu zuen, entzule eta ikasle. “Hitzen piratak” deitu zituen Gandiagak UEUko irakasleak, *Arantzazu* aldizkarian idatzi zuen artikuluan (511. zenb., 309. or.). “Hitzen piratetakoak” zen Txillardegi ere, parte bizia izan baitzuen UEUren jardunaldi haietan irakasle gisa. Hala ere lehenagotik ere ikusia behintzat bazuen seguruenik Arantzazun bertan, han egonaldiak egina baitzen Txillardegi, berak 1965ean idatzitako gutun batetik dakigunez” “Zer ez nuekan emango ‘Sindika’enean edo ‘Hostelería’enean [sic] berriz ere, aspaldian bezela, egunsentietan ardien arranak entzun ahal izateagatik!! Baiña hemen egon behar...” Bruselatik ari zen idazten Jakin aldizkariko zuzendaritzako bati.

80 urte beteko ditu Txillardegik aurten. Urtebeteren aldea zuten hark (1929) eta Gandiagak (1928).

ARANTZAZUKO EUSKALTZALEEN BILTZARRA (1956): TXILLARDEGIREN GUTUNA

Euskaltzaleen Biltzarren parte hartu zuen Gandiagak bere hitzaldi eta guzti. Txillardegi, ordea, ez zen batzarre hartan izan, Galizian baitzegoen soldadu; baina bere gutun irekia —“Karta idigia”— bidali zuen (ik. *Euskera*, 1956, I: *Euskaltzaleen Biltzarra* (monografikoa), Bilbao, 1956, 245-250 or.).

Bidezkoa da Euskaltzaleen Biltzarre hartara bidalitako gutunean Txillardegik jaulkitako iritzi eta proposamenak laburki bederen aipatzea hemen; oso interesgarriak zirela uste dugu, duela 50 urtetik gora. Haste-ko, euskararen galera handia —“beraka gorria”— nabarmendu zuen. Beltz ikusten du euskararen erabilera bereziki: zenbait herri txikitan bai- zik ez omen zuten haurrek eta gazteek euskaraz egiten. Eta euskal lite- ratura ugaritzen ari bazen ere, beheraka ikusi zuen idazleen hizkuntz kalitatea.

Egoera horri aurre egiteko honako irizpideok eman zituen: a) Eus- kaldunen lana, lan gogor eta tinkoa, kanpotik jarritako trabak deitoratzen denbora galdu gabe, eta haiek aitzakiatan nor bere kontzientzia zuritu gabe b) Amateurismoa eta anarkia gainditzea, bata bestearen kontrako borroketan, eta nor bere euskara asmatzen ibili gabe; c) Garbizalekeria baztertzea, euskal lexikoa egungo kulturara egokitzean —“Euskera gar- bia etzaigu ajolik, bizia baizik”—; d) Euskara ahularen errukizko senti- mendutan gertatu gabe, praktikotasuna da beharrezkoa euskararen sal- baziorako; e) Euskararen aldeko proiektu berriak asmatzen ibili beharre- an, dauzkagunak burutzen behar dugu ahalegina jarri. —Honelako zen-

*Elorri liburuan badu
Bitoriano Gandiagak
olerki bakan bat, beste
guztietatik apartekoa.*

*Beste idazle bati eta hark
idatzia duen obra jakin
bati eskainia delako
—horrelako bakarra liburu
osoan—: Txillardegi da
idazle hori, eta Leturiaren
Egunkari Ezkutua da
liburua eta “Gizon begi-
goritu” hasten da.*

**Euskaltzaleen Biltzarren
parte hartu zuen
Gandiagak bere hitzaldi
eta guzti. Txillardegi,
ordea, ez zen batzarre
hartan izan, Galizian
baitzegoen soldadu; baina
bere gutun irekia –“Karta
idigia”– bidali zuen .**

bait zabaldu berria zuen Txillardegik *Egan* aldizkarian argitaraturiko “Ez bat eta ez beste” artikuluan ere (1956, 3-4 zenb., 44-49 or.)—.

Azken puntuari dagokionez bada ideia zehatz bat gutunean aski harrigarria gertatu zaiguna: Dauden euskal aldizkariak hobetzea aldera, aldizkari berririk atera nahi izatea kaltegarritzat jotzen du: “Gutxietsita ba-dago euskera, erauzi egin bear da gutxiespen ori indar dezaken guzia. Onengatik, aldizkari berriak orain argitara eman opa izateari kaltegarri deritzat: finkatu ta senotu egin bear ditugu lenbizi, orain nekez iretetzen diranak, gure laguntsa oso eskeñiz”. Ordurako *Egan* eta *Euzko-Gogoa* aldizkarietako lankide bihurtua zen Txillardegi, eta horiek indartzearen aldekoa zen zalantzarik gabe. Kontua da Biltzarrean bertan aurkeztu zutela lehen aldikotz *Jakin* aldizkaria; Arantzazuko ikasleen asmo horren berririk ba ote zuen Txillardegik? Horren kontra al zetorren, hain zuzen, haren iritzia? Gutuna irakurri ondorengo elkarrizketan iritzi horrexen aurka atera zen, hain zuzen ere, entzuleetako bat. Eta K. Mitxelena mahaiburuak Txillardegiren hitzak bere aldetik interpretatu nahi izan zituen: Hura ez bide zegoela aldizkari berririk sortzearen aurka, eta bai bizirik daudenak indartzearen alde, berririk ez dagoen bitartean.

Euskararen salbaziorako eskatzen duen praktikotasunaren ildotik, honako bi helburu zehatzok proposatu zituen Txillardegik bere gutunean: “1) Gutxiengo edo minoria bat gertu [prestatu?]. 2) Euskera gaitu, batu eta osatu”. Eta ildo horietatik “eginkizun praktikuak” ipini zituen: — nork bere aldetik euskara landu, euskal klasikoak ikasiz; — “ba-dauden eskolak tajutu, alkartu ta eratu”; — euskaltzaleen elkarrekiko ezagutza “biziagotu”; — egon dauden euskal aldizkariak eta erakundeak indartu; — euskal jaiak antolatu eta antzerkia suspertu.

Azkenik Euskaltzaindiari ere lan-ildoak markatu zizkion: Euskaltzaleen lanak koordinatzea, batetik; eta euskararen batasuna zehaztea, bestetik, euskara “pertsonalak” eta “euskal berrikeri guziak” baztertuz.

Txillardegiren gutunean bada beste puntu bat, gaurko egunetik begiratuta deigarria gertatzen zaiguna, eta “Euskaltzaleen gutxietsimiña” izeneko ataltxoan datorrena (247-248 or.). “... asieran beiak eta baserriak ba-ziran euskeraren gai bakarra, Garai bateko nekazaritzako gaiak alde batera utzita, Mekanika Ondulatoria ta ‘Filosofia’ren aldera jo dugu gaur”, dio berak; eta mutur batetik bestera joatea irizten dio horri, eta oreka eskatzen du, “ziturik ez dakarten alegiñetan” denbora galdu gabe.

Hamasei urte lehenago bestelakorik predikatua bazuen ere (ik. Euskaltzaleen biltzarrera bidalitako hitzaldia); baina ez ziren alferrik igaroak hamazazpi urte, eta ikastolak indarrez haziak ziren, eta euskara batuaren bidea irekita zegoen... eta Euskal Unibertsitatea eraikitzeko bidetan ginen... eta orain matematika irakasten ari zen Txillardegi, euskaraz.

LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA: “ZEUREKIN NOA” (GANDIAGA)

Txillardegiren lehen nobela, egunkari moduan idatziak, zirrara handia piztu zuen euskal irakurleen artean, eta kontrako iritziak ere piztu zituen, bereziki elizgizonengan. L. Mitxelenak liburuaren sarreran abisua emana zuen: “Ez dut uste inoiz gure hizkuntzan entzun denik horrelako hitz larririk, horren zinezko aitotrik, horrenbesteko karraxi sarkorrik. Ez dugu sekula egin, hitz batean esateko, Leturia-rena bezalako ibilaldirik gogo-bideetan barrena” (1983ko ed., 11. or.). Arantzazuko Teologiako ikasleek ere “irentsi” egin omen zuten nobela, Iñaki Bastarrikak Txillardegiri berari gutun moduan *Jakin* aldizkarian idatzitako artikuluko kritikotik an aitortu zuenez;¹ eta goraiipamen handiak izan zituen nonbait; Bastarrikak berak, pozik agurturik idazle gazte berri “egikorra”, bere iritzi aski negatiboaz azaldu zion nobelari buruz, batez ere “ekarritakoak” omen zirelako bertan erabiltzen zituen gaiak, eta ez “etorritakoak”. Luis Villasantek —Bastarrikaren eta lagunaren irakasle orduan Arantzazun— *Egan*-en argitaratu zuen bere iritziak;² gaiaren aldetik kritikatu zuen bereziki nobela, eta existentzialismoren kritika orokorra egiteko baliatu zuen bere idatzia; hala ere, autoreari zorionak emanez —“euskal literaturan egin digun sarrera ospetsuagatik”— eta obragatik bere poza agertuz amaitu zuen bere idatzia: “Ondokoak asikiñen arabera izango badira, ba-du ama euskerak zergatik poztu”. Salvatore Mitxelenak Montevideon irakurri zuen nonbait Txillardegiren nobela, 1954an Donostiatik Ameriketara aldatua baitzen misiolari. Ordurako idatzita baina argitaratu gabe zeukan bere *Unamuno eta abendats* liburua —1958an argitaratu zuten hori lehen aldiz—; oso gogoko eta agian hurbileko gertatu zitzaion Donostian ezaguturiko gaztea Unamuno-zalearen nobela existentzialista, eta bere testuan sartu nahi izan zuen haren aipua. Unamunorekin elkarrizketan ari dela aipatzen du, hain zuzen ere, “Txillardegi...tarren nobelagintza” besten hain euskal idazle garaikoeekin batera; eta Euskal Herriaren minaz ari dela, aipu luze bat atera zuen nobelatik eta bere liburuan sartu: “Illuna da poesia. Alaia ez da poesigarri...”, etab.³

Tartean Gandiagak ere —orduan Arantzazuko seminarioan irakasle— irakurria zuen Txillardegiren nobela. Ikaragarritzko zirrara egin zion nonbait, eta zinez identifikatuta sentitu zen Leturiaren bizigura eta “zorion-min” bete-ezinezekin⁴ eta nobelaren autorearen atzeko garrasiarekin. Eta horrenganako sentitzen duen erruki eta sinpatiatik ateratzen zaio hasieran aipatu dugun olerkia: “Gizon begi-goritu”. Egokia deritzogu oso-osorik ematea hemen, luzea izanik ere:

*Bidezkoa da
Euskaltzaleen Biltzarre
hartara bidalitako
gutunean Txillardegik
jaulkitako iritzi eta
proposamenak laburki
bederen aipatzea hemen;
oso interesgarriak zirela
uste dugu, duela 50
urtetik gora.*

*Euskararen salbaziorako
eskatzen duen
praktikotasunaren
ildotik, honako bi helburu
zehatzok proposatu
zituen Txillardegik bere
gutunean: "1) Gutxiengo
edo minoria bat gertu
[prestatu?]. 2) Euskera
gaitu, batu eta osatu".*

Gizon begi-goritu,
gizon jagi-zale,
gizon griñen-katigu,
gizon miñez-bete...
Gizon...

Zeuk legez daukat
arima gartsu bat.
Zeuk legez nekatzen naz
muga leun baterantz.

Gorputza, zur ta burdin.
Ariman indarra.
Bien artean, beti,
zerbait, kirri-karra.
Etzan izan koipea
jan gendun sagarra.
Lander doa itxasoan
gure ontzi sorra.

Gizon begi-goritu,
gizon urten-zale,
gizon bakez-gosetu,
gizon katez-bete...
Gizon...

Zeuk legez daukat
arima gartsu bat.
Zeuk legez, naikun biren
soka-tira daukat.

Gorputzak bere gusto
gaiztoak ba-ditu.
Zeiñen sendo jakozan
ta zeñen zoratu!
Begi gabe daroe,
arriskuz-arrisku,
engaiñuzko loturaz
biziro katigu.

Jaunak geure menpeko
egin eban lurra.
(Baiña ba-dogu, nunbait,
zaiñetan mozkorra).
Gurari illun bateri
makurtuz bizkarra,
jabeak morroiari
zor ez deusnan zorra.

Arima, bere aldiz,
ernegu da bizi.
Ezin da beekoz ase
fiñagoa izaki.
Espiritu ta gorputz
biekin bat naz ni,
bien nai ez bardiñak
nabe gerra-toki.

Gizon, zeuk legez daukat
arima gartsu bat.
Zeuk legez, naikun biren,
soka-tira daukat.
Betiko jardun baten
nekea daroat:
Ezagun nau gogaitak.
Etsipen lagun jat.

Zeuk legez esaten dot
neure zori miña,
negarrez erregutuz
poza ta atsegiña.
Atondu nai daroat
—ai, naia ta eziña!—
zalantza, aize, fedezko
barruko lorriña.

Adimenaren illun,
oroimenen ausle,
borondateko uger,
naikerien aize
sentiduen engaiñu,
indarraren kalte,
ostutako sagarrak
zenbat bear deunge!

Atsegin baratzean
sagarrak kimetan.
Tentaziñoa orri
orlegi artean.
Ume nintzan goizean
gauzak argi ziran.
Begotan illuna
gero azaldu zan.

Gizon begi-goritu,
gizon lertu-zale,
gizon griñen-katigu,
gizon miñez-bete...
Gizon...

Zeurekin noa
mugako porturantz,
gauzak argi dagozan
erri askaturantz.

Liburua irakurri eta berehala idatzi zuen nonbait olerkia. 1957an bertan argitaratu zuen osorik *Egan* aldizkariak. *Elorri* libururako (1962) olerkiak aukeratzen eta antolatzen autoreari lagundu zion Joxe Azurmendiri galdetu diogu zergatik eta nolatan sartu zuten liburuan olerki bakan hori. Eta haren erantzuna: Gandiagak barne sentimendu-leherketa izan zuen nonbait *Leturiaren Egunkari Ezkutua* irakurtzean, eta sentimendu horretatik atera zitzaion barru-barrutik olerki apasionatu hori. Liburuan sartu, berriz, Gandiagak berak hala nahi izan zuelako sartu omen zuten. Txillardegirekin identifikaturik gertatu zen Gandiaga, liburua irakurtzean; “Zeurekin noa”: horra olerkiari ipini zion titulu guztiz adierazgarria *Egan*-eko edizioan, olerkiaren azken ahapaldiko lerroetako baten oihartzun.

Gandiagak berak “*Lehenengo akordua*” hitzaldian —hitzaldi-eske-man— Txillardegiren eta beraren arteko kidesuna honetara aitortu zuen: “Txillardegi eta ni ez gara eskola bera, baina bai komunitate literario berekoak. Leturiaren egunkaria. Nik erantzuna. Beste tradizio batetik etorri arren eta diferenteak izan arren, ez dugu elkar arrotz hartu, anaiak bezala baino”⁵. Txillardegiren nobelaren oihartzun da, beraz, “Gizon begi-goritu” olerkia, Gandiagaren bihotzean egin zuen oihartzuna.

Bi edizioetan “Txillardegi jaunari” dago eskainita poema. *Egan*-eko edizioaren buruan badago Isaias profetaren aipu misteriozkoa, *Elorri*-koan desagertu zena: “*Calamum quassatum non conteret*” (=Kainabera printzatu ez du hautsiko)... Jainkoaren Zerbitzariaren etorrera iragartzten du profetak testu biblikoan, eta horren jokabide “malgua” deskribatzen du. Luma ere adierazten du latinezko “*calamus*” hitzak; irudi luke, beraz, idazle gaztea, kainabera bezala hainbat kritikarik astindua, defen-

Azkenik Euskaltzaindiari
ere lan-ildoak markatu
zizkion: Euskaltzaleen
lanak koordinatzea,
batetik; eta euskararen
batasuna zehaztea,
bestetik, euskara
“pertsonalak” eta “euska
berrikeri guziak”
baztertuz.

*Garai bateko
nekazaritzako gaiak alde
batera utzita, Mekanika
Ondulatoria ta
'Filosofia'ren aldera jo
dugu gaur", dio berak; eta
mutur batetik bestera
joatea irizten dio horri,
eta oreka eskatzen du.*

*Txillardegiren lehen
nobela, egunkari moduan
idatziak, zirrara handia
piztu zuen euskal
irakurleen artean, eta
kontrako iritziak ere
piztu zituen, bereziki
elizgizonengan.*

ditzera datorrela Gandiaga kritika gogorreki, zurrunezi eta erabatekoeta-
tik, horiek eragindako pitzatu eta guzti, zutik eta aurrera jarrai dezan
idazten idazle berriak.

Egan-eko eta Elorri-ko testuak ez dira guztiz berdinak; baina aldake-
tak ez dira esanguratsuak gure honetarako; Elorri-koa hartuko dugu
hemen gidatzat.

"Gizon" hitzarekin hasten da olerkia, eta horixe da nabarmen nagu-
si olerkian —16 aldiz ageri da, eta hiru aldiz dagokion lerrotik aparte ida-
tzita gainera, gehiago nabarmentzearen edo: Gizon...—. Nor da gizon
hori? Txillardegi da zalantzarik gabe, Leturiaren atzean Gandiagak ikusi
duena. Txillardegik berak idatzia zuen aurreko zenbakian honako hau,
Unamunori buruz: "'Gizontasuna dario Unamuno'ri, berak erderaz
'hombredad' esango lukena" (...) "Gizon osoa degu. Orregatik kezkatu.
Kezkak eragiten dio: kezkatan dabil, kezkatan bizi da, kezka gorrian
iltzen da, kezka baten ildo da bere bizitza"⁶. Hemen gizatasunaz kezka-
turiko gizona Txillardegi dugu: "Gizon begi-goritu"... Lelo moduan
dago errepikaturik hiru aldiz. Gizon horretxan deskripzioa da azken
batez olerki osoa: nobelatik ateratako deskripzioa. Barru-barrutik hunki-
tuta eta dardaran utzi zuen Leturiak Gandiaga.

Leturia, berriz, Txillardegi bera da harentzat: "Zeu"... Zazpi aldiz
dator izenordea olerkian —"Zeuk legez..."—, nobelagilearen eta poetaren
arteko ia erabateko identifikazioa ipiniz. Bere burua ikusten du ispilatutik
Gandiagak Leturia pertsonaia sortu duen Txillardegirengan. Bere burua-
ren deskripzioa egiten du azken batez Gandiagak olerki honetan: "Zeuk
legez daukat / arima gartsu bat", "Zeu legez nekatzen naz", "Zeuk legez,
naikun biren, / soka-tira daukat", "Zeuk legez esaten dot / neure zori
miña"... Eta identifikazioz identifikazio, Txillardegiren elkartzen da
azken buruan, harekin bide bera egin nahian: "Gizon... Zeurekin noa".

Azken ahapaldiak hitzez hitz heltzen dio hasierakoari, existentzialis-
moaren giza bizitza irtenbiderik gabekoaren zirkulua ixte aldera edo...
Baina hortxe bertan —azken lau lerroetan— ireki egiten du bat-batean
Gandiagak bizitzaren zirkulu existentzialista, bere kristau fedeko espe-
rantzari bide emanez: "Gizon... Zeurekin noa / mugako porturantz, /
gauzak argi dagozan / erri askaturantz"⁷.

LETURIA ETA GANDIAGA: JORANEAN BAT, BIZIPOZEAN URRUN

Txillardegiren nobelaren hasieran, lagunartetik ihesi eta bakardade bila,
Zerubide parkera doan Leturiagan erraz asko ikus zezakeen Gandiagak
bere burua, honako hau idatzi zuenean: "Bakardadeak nau / deitzen, era-
kartzen: / beti ulertzen nau, / beti nau onartzen"; edo beste hau idatzi
zuenean: "Ez nauzu lagunarteko, / ez nauzu berritsu ere. / Bakardade-
ak, isiltasunak / egin naroe libere".

Lehen orrialdeetatik agertzen du Leturiak bere egunkariaren ildorik behinena: “Zer dira nire lerro hauek guztiak arrenkura sutsu baten gar kiskalgarri baizik? Zorion irritsa da, bai, nire kezkaburua, bakarrik ego-tera ekarri nauen zio ezkutua, eta neure lagunengandik ihesi joateko agindu nauen ahotsa. Hori ez besterik. Zorion-mina da izadiaren eder-lore iaukadak sortu didan bihotz-hutsunea” (27-28 or.). Horra nobela oso-ko zenbait hitz gako: ‘arrenkura’ eta ‘kezka’, ‘zorion-irritsa’ eta ‘zorion-mina’; eta horien kideko ‘desira’... eta ‘bizigura’.

Aseezina da, ordea, giza bihotzeko sentimendu hori, maitearen mai-tasunak ere bete ezin duena, eta ondorioz giza-larritasuna: “Alabaina, gehiago behar du nire bihotzak, ‘zerbait’ eskatzen dit orain lehen baino ere bortitzago. Eta, zer eman diezaioket nik? Hau ez da behar zuena, Miren ez da, agiri denez, bete lezakeena” (80. or.).

Gandiagaren beraren idatzietan ere behin eta berriro aurki daitezke horrelako hitzak: irrits-azkura⁸, irrika⁹, bizimina¹⁰, bizi-nahia edo bizigura¹¹. Eta zorion-min aseezina ageri da: “Zoriona bada baina / laburra du irau-pena / zoriona / dastatu dugun orduko / ia urtzen zaigu dena”. Baina, gorago adierazi dugunez, Gandiagaren idatzietan bada hitz bat berezia eta bereziki nabarmentzen dena —hogeita hamabost testutan ageri da—: ‘joran’. Honetara definitzen du poetak berak: “Jorana edo zerbaiten gogo-mina edo nahi litzatekeen zerbaiten falta edo arimako gosereren baten aseezina edo zerbait gogokoren hutsune tristezia ganduzkoa edo nik dakit, ba, zer behar ezkuturen irrika bustia”.¹² Nork ez du entzuten horretan Leturia-ren egunkariko hainbat eta hainbat paragraforen oihartzuna?

Hiru gizon bakarka liburuko olerki-zati honek sintetizatzen du giza sentimendu hori:

Ezina
nahiaren
oinaze
mina

Nahiaren
grina
sorgina.

Nahia ta mina
elkar-txoratu
zitian amets

Bizitzako min, kezka eta larritasunari dagokienez, bada Leturiaren egunkarian pasarte bat bereziki gogorra, bere begiak eroarenak bezalako-ak direla konturatzen denean: “Oraintxe ikusi dut ispiluan neure burua, eta hortzikara batek inarrosi nau: eroen begiak ditut! Ez begik bakarrik,

*Tartean Gandiagak ere
–orduan Arantzazuko
seminarioan irakasle-
irakurria zuen
Txillardegiren nobela.
Ikaragarritzko zirrara egin
zion nonbait, eta zinez
identifikatuta sentitu zen
Leturiaren bizigura eta
“zorion-min” bete-
ezinarekin eta nobelaren
autorearen atzeko
garrasiarekin. Eta
horrenganako sentitzen
duen erruki eta
sinpatiatik ateratzen zaio
hasieran aipatu dugun
olerkia: “Gizon begi-
goritu”.*

***Liiburua irakurri eta
berehala idatzi zuen
nonbait olerkia. 1957an
bertan argitaratu zuen
osorik Egan aldizkariak.***

***“Zeurekin noa”: horra
olerkiari ipini zion titulu
guztiz adierazgarria
Egan-eko edizioan.***

***Irudi luke, beraz, idazle
gaztea, defenditzera
datorrela Gandiaga
kritika gogorregi,
zurrunegi eta
erabatekoetatik, horiek
eragindako pitzatu eta
guzti, zutik eta aurrera
jarrai dezan idazten
idazle berriak.***

neure itxura osoa baizik. Betazpi ikaragarriak ditut, eta bi txinpart ematen dute nire beginiek. Leher egina nago” (96. or.). Gertakari eta larrialdi berdinak bizi izan zituen Gandiagak, Lurralde santura erromes joanda, Tel Aviv-eko hoteleko gelako ispiluan bere begiak zakurraren begi aurkitu zituenen: “Zakur nekatuaren / begiak ditut. / Usna lizean begiak / begira gogor bilakatu zaizkion / zakurraren begiak”.¹³

Kidetasun eta guzti, bada alde handirik dago Leturiaren egunkariaren eta Gandiagaren olerkiaren artean: Bizimina, tristura eta oinazea bakarrik idazten du Leturiak; leku nabarmena dute horiek Gandiagaren poesian ere, baina bizipoza kantatzen batez ere. Leturiak triste eta kezkatuta dagoenean bakarrik idazten du egunkaria —udan ez du idazten, zorioneko dagoelako—; eta teoria osoa egiten du gainera horretaz: “Iluna da poesia. Alai ez da poesigarri. Ez al zenuen orain arte nabaitu? Nekez azal daiteke munduko alaitasuna: osoa ez delako, noski, ez gaitu sakon hunkitzen. Tristura, ordea, bihotzeraino sartzen zaigu. Eta lehenengo antzu eta urri bada burutapenetan, aberats eta oparo da bigarrena.” (74. or.). Gandiagak ere badu tristurarako joerarik; baina ilunak tristetzen duen baino gehiago alaitzen du argiak; eta bizi-poza aldarrikatzen eta kantatzen du orduan —50 bat testutan darabil “bizipoz” hitza; bizipoz bihurtzen du hark bere bizimina —“Maite dut bizitza, / maite dut, / eta bizipoza opa diot / bizitzari”—. Gandiagak ez du sekula tristuraren apologia poetikorik egin; bai alaitasunarena. Eta bere baitako bizimina, nahiz herriaren, euskararen eta herritar pobre eta bajuen sufrimendua eta jendearen tristura kantatzen dituenen ere, esperantzaren leihoa irekita utzi ohi du ia beti:

Nora bota dugu poza?
Serio dabil jendea.
Zein gaitzek ote du harjo
bizi-indarraren lorea?
:.....
Kezkatua, triperrea,
barruko argi gabea;
zerbait ilunek ito du
pertsonek irribarrea.
Leiho eta ate zabalduz
egurasten da etxea.

Egun eta eguraldia argiak poztu eta alaitu egiten du Gandiaga —“; Leturia berriz tristetu. Adierazgarria da Leturiaren eta Gandiagaren bizitzetako bi pasarteon kontraposizioa: a) Leturia leihotik kanpora begira: “Hau eguraldia! Ni ez besteak oro alai daude. Arratsalde argia gaurko hau, eta joan-etorri bizia kalean...” (50. or.); b) Gandiaga leihotik kalera begira amarekin: “Inor ikusten duzu barrez, irribarrez edo poz aurpegiz

ala?, galdetu zidan [amak]. Ezetz nik, bekokia argi-argi zeraman jenderik ez nuela erreparatu (...) Jende horrek daukanaren hamarrenaz zoratuko ginatkeen gu pozaren pozez”, gaineratzen dio amak.

Egia esan, Leturia eta Gandiaga bata bestearen kontrako ageri zaizkigu tristura eta alaitasunari buruzko beren zenbait erreakzioetan. Aurrena irailan alaitzen da, uda pasa delako eta udatiarrak joanak direlako: “Uda bukatzen ari delako nago pozik” (51. or.); alderantziz Gandiagak aitortua digu, udazkenari begira eguna mozten hasten zenean, orduantxe hasten zela pixka bat tristatzen. Sarritan kontatu zuen, bestalde, bere haurtzaroko oroitzapen hura osabaren etxean: nola ilunabarrean, eguzkia itzaltzerakoan, negar egiten zuen aulki gainean zutik leihotik begira. Leturiari, berriz, poza eta tristura biak nahasian sortzen dizkio ilunabarrak: “Eta hau [egunkaria], idatzi ondoren, arratsaldea hiltzen ikusiko dut talaitxo hartatik. Hau poza. Eta hau tristura! Hau ederra!” (30. or.).

LETURIAREN ETA GANDIAGAREN JAINKOMINA

Inoiz asegabeko zorion-minaren min ibili ondoren, honako aurkikuntza hau egin zuen Leturiak: “Argi ikusi dut gaur, eta bihotz-hutsunearen sus-traiari igarri diot: Jainkoaren egarrria da gizonaren zorion-mina. Zerbait Absolutu behar zuen nire bihotzak. Hartan atsedena eta atsegina edateko. Betetasuna behar nuen, osotasuna, gelditasun osoa, bake egiazkoa, egia hutsa, denetatik dena. Nola bete nintzake emakume gajo batek? Nire egarri ber zuenak palakatuko ninduke agian?”. Nobelaren alderik positiboenetakotzat jo zuen aurkikuntza horixe Villasantek bere idazlan kritikoan. San Agustin handia bera ipini zuen aurreraxeago bere aurkikuntza-aren bermetzat, haren hitzak bere eginez: “Zeuk esnatzen duzu (gizona) Zu goratuz gozaro dadin; zere Zeuretzat egin gintuzu, eta urduri dakilke gure bihotza Zuga atsedena arte” (122. or.).

Baina Jainkoagana iristeko biderik ez du ikusten Leturiak, edo bide asko sumatzen du, erlijioen arabera. Eta badirudi hautatu ezinik geratzen dela Leturia: “Baina, zein fede? Edozein? Zein bide? Zein absolutu?” (125. or.).

Jainkoaren hitzik ez eta arrazoimenaren argirik ezean, bihotzera jotzen du berriro, maitasunera: “Zoritxarrez, ez du Jainkoak hitz egiten; baina behartiak hitz egiten didate haren orde, edo Hark hauen ahoaz. Maite-deia da berena, eta Jainkoak berak deitzen nauela iruditzen zait, zergatik garbiro ikusi ez arren. Hobe da maitatzea, ezagutzea baino. Hobe eta egokiagoa” (125. or.).

Eta maitasunaren bidea aurkitzean, Jesu Kristorekin topo egin duela uste du: “Nork hitz egin zuen beti maitasunaz? Aitortzeko beldur naiz: Kristo!” (139. or.). Eta otoitzari ere helduko dio. Baina Mirenen heriotza-aren erru-kontzientzia jasan ezinik, bere buruaz beste egiten du Leturiak azkenik.

Gizon...-. Nor da gizon hori? Txillardegia da zalantzarik gabe, Leturiaren atzean Gandiagak ikusi duena.

Hemen gizatasunaz kezkaturiko gizona Txillardegia digu: “Gizon begi-goritu”... Lelo moduan dago errepikaturik hiru aldiz.

Eta identifikazioz identifikazio, Txillardegiren elkartzen da azken buruan, harekin bide bera egin nahian: “Gizon... Zeurekin noa”.

Aseezina da, ordea, giza
bihotzeko sentimendu
hori, maitearen
maitasunak ere bete ezin
duena, eta ondorioz giza-
larritasuna.

Kidetasun eta guzti, bada
alde handirik dago
Leturiaren egunkariaren
eta Gandiagaren
olerkiaren artean:
Bizimina, tristura eta
oinazea bakarrik idazten
du Leturiak.

Gandiagak ere badu
tristurarako joerarik;
baina ilunak tristetzen
duen baino gehiago
alaitzen du argiak.

Horra Leturiaren jainkominaren mina... Eta Gandiagarena? Patxi Ezkiagak idatzi du, haren *Jainkomez* liburua aurkeztuz: "Gandiagaren poema hauetan jainkoa errealtate guztiaren azken oinarri absolutu gisa azaltzen dela, gizakiarena, baina baita naturarena ere, poema askotan islatzen den komunio prozesuak adieraten duen bezala. Jainkoa gure intimitatearen eta istoriaren kontraesanak argituko dituen Itxaropen izango da, nihilismen erortzetik libratuko gaituen Argi sakon eta sosten-gatzailea".¹⁴

Poza kantatzen du Gaindigak eta otoitz bihurtzen: "Poza nahi dizut azaldu / poza aitortu. / Pozari buruz, / nahi dut zurekin mintzatu". Eta bidea aurkitu du poz-gabezia ere poz bihurtzeko:

Egiazko gozotasun
gozotasun sakona,
kontentua falta zaigu,
poza ta alaitasuna.
Ez al dugu zuzpergarri
fedea dioskuna?
Pazko eguzkirik gabe
zer da kristautasuna?

TXILLARDEGI ETA GANDIAGA, EUSKALMINAK BATUTA

1953-54ean hasi zen Txillardegi euskaraz mintzatzen, bere gutun batean dioenez; gogoangarria zaio Salbatore Mitxelenarekin Atotxan izandako elkarrizketa, "orduan hasten bainintzen ni euskeraz mintzatzeko gauza izaten". 25 urte zituen mutilak orduan; seguruenik irakurriak zituen haren *Arantzazu euskal-poema* (1949) eta *Ama-semeak Arantzazuko kondairan* (1951) liburuak.

Ba ote dugu baieztaterik Gandiagak, bere aldetik, Txillardegi izan zuela bere eredu eta nolabait maisu euskararekiko atxikimendu eta bizi-eran? Seguruenik bai; agian 1956an haren gutun hirekin entzun zuenetik bertatik. Hogei urte geroago *Argia* aldizkarian egindako elkarrizketan honela zioen: "Ni euskaldun ximple bat naiz, eta badakit Euskal herriaren zati haundi bat jadanik hil dela. Euskarak berak ez dauka zergatik bizirik jada. Gure gurasoen garaian ez zitzaien haiei euskararik egin, euskara debekatuta zegoen. Orduan guk bagenuen arrazoi bat euskara egiteko, gurasoak bizirik genituelako, haiekin komunikatzeko, haiei esperantza emateko. Gaur egun denok dakigu nahiko kastellano, eta euskara roman-tizismo bezala edo ikusten dut. Egia da, nik nere bizitzarako behar dut euskara, eta ni bezala euskara behar duten 'kapritxosoak' lagun ditut, Txillardegi bat, bat esateagatik".¹⁵

Bizitzarako behar zuen euskara Gandiagak, eta bizitzarako euskara bizia behar genuela aldarrikatu zuen gutun hartan eta beste idatzietan

Txillardegik. Elkarriketa berean, beharaxeago esandako hitzak dira hauek: “Euskarari eutsi behar diogu, geure herritasunaren gauzarik garrantzikoena bera delako”. Nork ez du aditzen hitz horietan Txillardegin hainbat narbarmendu izan du ideia: Euskal Herriaren herritasuna, izaera eta bizitza bera dagoela jokoan, alegia, euskara bizi ala ez bizi? Euskararen eta Euskal Herriaren arazoari buruz ikuspegi “agonikoa” du Gandiagak, Txillardegik bezala. Bestalde, ezagunak da batak nahiz besteak eurrez erabili izan duten “euskaldunak” versus “baskoak” bereizketa.

Beste hainbat aldetatik aztertu ahalko genituzke Txillardegi eta Gandiaga, euskararekiko bien sentieran eta pentsaeran kidetasuna handia arkitzeko moduan. Gandiagaren bi ideia bakarrik gaineratuko ditugu hemen, Txillardegiren gutun ireki hartan eta beste hainbat idatzitan ondo markatuta eta aztertuta daudenak: a) Herriarena da hizkuntza —“... zeurea dut hitza / ta hitzaren bizitza / ta bizitzaren bitsa / dudan bizi-gurazko / bizi nauen gaitza”; b) Hizkuntzan dago bilduta Herriaren historia eta tradizioa —“Lehenik maite baduzu, / lehenarekin oraina / nahi baduzu lotu, / hor duzu hizkuntza, / hor duzu Kondaira / Kondaira-giltza” —. Euskararen profetatzat defini genitzake gure bi gizonak.

Euskal Fonetika liburuaren sarrera Arantzazun sinatu zuen Txillardegik (1980). Hona horko azken hitzak: “Eta eskerronezko hitz berezi batzuek bukatzeko Arantzazu-ko frantziskotarrei, eta bertako sarrera eman zidan B. Gandiaga poeta eta adiskideari. Bertan egindako egonaldi hura gabe, liburu hau bukatzeko paradarik ez bainuen zinez ikusten”. Luzaroan bizi izan zen Jose Luis Arantzazuko seminarioan, hango fraide irakasleekin jatorduak eta otoi-tza eginez, liburu burutzen zuen bitartean.

Txillardegik berak eman zigun horren aitorpena, poeta hil zenean (2001), honekiko beste oroitzapenekin batera. 1977tik aurrera harreman handia lotu omen zen Txillardegi idazle, hizkuntzalari eta soziolinguistaren eta Gandiaga poetaren artean. Txillardegik berak kontatzen digunez, Arantzazura joaten zen UEUko udako jardunaldien ondoren, atsedean bila; eta bertan behera sortu zen bien arteko hurbileko harremana.

Harreman horretatik etorri zen, beraz, Gandiagak Txillardegi Arantzazuko seminarioan ostaturik bizitzera gonbidatzea, bere liburu buru zezan. Bertako fraide irakasleekin batera bazkaltzen zuen Txillardegik, eta haien otoi-tzetan parte hartu ere bai nonbait; eta Arantzazuko mendietan egiten zituzten beren ibilaldiak hizkuntzalariak eta poetak, beren idazte- eta irakaste-lanlanak geratuz asaskatze aldera. Famili biziera hartan sortuak dira Gandiagak Txillardegiri kantatu zizkion bertsoak, hemen bertan dakartzagunak. Poeta-bertsolari berak kontatzen digu horien testuingurua:

“Arantzazuko irakasleok oso konpetenteak gara, ezaguna denez, nahiz eta ez beti geure eginkizunetan izan konpetenteenak. Baditugu jaten edo edaten doktratuak, Nobel sari aisa irabaz lezaketenak, baditugu etimologista distiranteak, deskuidatzen bazara koko bat bajutik eransten dizutenak, joga-zaleak, fotin-zaleak, eta edozertarako talentuak. Urte betetzeak onak izaten dira holako birtute sekretuen aipamenerako.

Egia esan, Leturia eta Gandiaga bata bestearen kontrako ageri zaizkigu tristura eta alaitasunari buruzko beren zenbait erreakzioetan.

Badirudi hautatu ezinik geratzen dela Leturia: “Baina, zein fede? Edozein? Zein bide? Zein absolutu?”.

*Egia da, nik nere
bizitzarako behar dut
euskara, eta ni bezala
euskara behar duten
'kapritxosoak' lagun
ditut, Txillardegi bat, bat
esateagatik".*

*Euskal Herriaren
herritasuna, izaera eta
bizitza bera dagoela
jokoan, alegia, euskara
bizi ala ez bizi?*

*Ezagunak da batak nahiz
besteak eurrez erabili izan
duten "euskaldunak"
versus "baskoak"
bereizketa.*

Noizean behin izaten ditugu kanpotarrak ere gure etxean, etxeok bezalaxe izaten baitira guretzat. Liburu bat idazten ari zen batetan, Arantzazun urteak betetzea suertatu zitzaion Txillardegiri. Fraileon artean egin ohi dugun ospakuntza erittoa egin genion ari ere eta bertsoak berez apartekoak ez izan arren, Txillardegiri eginak direlako, hemen jarri nahi izan ditut, hori ere gure etxe giroaren barruan dator eta."¹⁶

Txillaregiren itxura fisikoa deskribatzearekin batera, haren obretako kezka nagusiak seinالاتen dizkigu bertsolariak, eta haren politikako eta hizkuntzalaritzako lanak gogorarazten. Hona hemen:

Alvarez Enparantza,
Jose Luis izenez,
euskalduna senez,
letretan Larresoro
Txillardegi oinez;
buruz mardula eta
zerbait dangil soinez,
bizkarra fruituz abail,
luma erdimenez
gizon sakona eta
emankorra zinez.

Existenzial mina,
Haizez Bestaldea,
kezka ta galdea:
Leturia-Peruren
barne-nahigabea,
gai bizi ta betikoz
darabil goldea;
kolpeak luze ditu,
gorra du atea,
erantzuna ez zaio
gertatzen merkea.

Politikan, hizkuntzan,
hor dabil jo ta ke,
enbido ta xake,
handiak hartu arren
beti "al ataque";
jokoan bai du bere
ondasun ta bake,
bizirik dueneino
aurrera doake
kantxa beteko ekaitz
erresto ta sake.

Zakur bakarra lagun,
Aloña hegian,
eremu handian,
badabilke antsia
asaskatu nahian:
goiztiar ikusi dut
mazelez pasian
txillar loreei begira
mineri zorian,
more aire gozotan
murgilduz, agian.

Bihar digu gizonak
urtebeteguna,
ospakizun leuna;
jantzi dezagun pozez,
ahalbait, jaikizuna.
Aurton etxeko dugu,
lehendik ezaguna,
arean jada baita
betiko laguna,
badaki Jose Luisek
onartzen duguna.■

OHARRAK

1. "Txillardegia jaunari", in: *Yakin* 5 (1957) 99-102.
2. "Leturia-ren Egunkaria Ezkutua", in: *Egan*, 1957 (5-6 zenb.) 328-332 or.
3. Lehen edizio 75. or.
4. Gandiagak berak "bizigura", "bizi-nahi" eta batez ere "joran" hitzak erabiliko ditu bere bere bizitzako aseeginaren sentimendua eta oinazea adierazteko.
5. *Hegats* 17/18 (1997), 106. or.
6. "Unamuno eragille", in: *Egan* 1957 (4-5) 174. or.
7. *Egan*-en eta seguruunik horren mendeko beste iturri batean "erri eskaturantz" dago idatzita; kopia-tzailearen okerra izan daitekeela uste dugu.
8. Irrits-azkura daukat. / —Bidean ilgo naz—. / ... Ezin naz bete, ezelan, / zernai aldikogaz. / Naiz eta zernai ori, / gauza t'on izanaz, / geiago bat gura dot / gaitz aundiko griñaz.
9. Nire irrika, arrain-ontziko / arrain gorria bezala, / aho zabalik, begiak zoro, / zerbait gozoa atze-man nahirik / saiatu ohi da arnaska sendoz, / nekatzen ez den betiko saioz.
10. Izatearen zoria dastatu duen gizona / izatearen bidez biziki batu den, / biziki bizimindu den izan-bidaia / ezinbesteko da, izate-bidea ezinbestean / bizitza berbera zaionez.
11. Aski da "Txakolinaren ospakuntza" irakurtzea, ardo izan nahi eta ezin duen txakolinaren sinbo-loarekin: Gora txakolina / ta damaidan poza / ta pozaren hitza / ta hitzaren bizitza / ta bizitzaren bitsa / dugun bizi-nahiezko / bizi gaituen gaitza.
12. "Lilluraz eta nekez. Nola ez?"
13. Hiru olerki idatzi zituen bere zakur-begiei buruz. Poetak berak damaigu orduan sentitu zuen larritasunaren berri: "Gau batean Hotelean neure begioz ohartu nintzen idazmahaiko ispiluan. Zur-tuta gelditu nintzen: zergatik eta nondik gogortasun hau? Juxtu esperantzaren lurraldeetan nentzile nire fedearen lurraldeetan. Hurrengo egunetan obsesio bat bihutu zitizkidan neure begiok" (*Adio*, Elkar-Arantzazu, 2004, 65. Or.)
14. Gandiaga, Bitoriano, *Jainkominenez*, Elkar-Arantzazu, 2005, 9-10. or.
15. *Argia*, XLVIII (1985, 1.049 zenb.), 25-28 or.
16. Giro horretako bertsoak hiru sortatan —"Liburuko Gandiaga" izenekoetan— bildu zituzten eta lagunartean zabaldu; horietako bigarrenean dago Txillardegiri eskania. Sorta horietako gutxi batzuk bakarrik daude liburutan argitaratuta. Gandiagak berak argitaratzeko prestatuta utzi zuen olerki-koaderno bat, hura hil ondoren *Adio* izenarekin argitaratu zutena. Koadernoko azken atalera bildu zituen sorta haietako kantaren batzuk, Txillardegiri abesturikoa, besteak beste. Baina editoreak kanpoan utzi zuen azken atal hori.

*Euskararen profetatzat
defini genitzake gure bi
gizonak.*

*Txillaregiren itxura
fisikoa deskribatzearekin
batera, haren obretako
kezka nagusiak
seinalaten dizkigu
bertsolariak, eta haren
politikako eta
hizkuntzalaritzako lanak
gogorarazten.*